txintxarri

2020-10-02 OSTIRALA / 1517. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Ezerk ez du festa zapuztu

la 300 pertsonak gozatu dute naturaz eta mendiaz iraileko azken igandean, Lasarte-Oria Trailek antolatutako II. Mendi Festan / 8-9

TXINTXARRI

Kultur ekintzez betetako urria

Urriko kultur agenda aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak. Ekintzez betea dator hilabetea; lehena gaur izango da / 7

2020-2021
ikasturtea
Izena eman Lasarte-Orian!
Gida / 5

Udazkeneko Festako sariak banatu dituzte Aterpeak eta udalak, 500 euroko bi eta 250 euroko hamar / 2

Eguzkik salatu du Lasarte-Txikierdi bidegorriaren zatiak 2017rako amaitua egon behar zuela / 3

Herriko bost tabernak 1.200 kilo janari bildu dituzte Moriako errefuxiatuei bidaltzeko / 4

'Nerabeak Euskaraldian' ikerketa liburua aurkeztu dute aste honetan, Donostian / 6

Ander Bardaji futbol atezainarekin 2020. urtean bizi izan dituen gorabeherez solastu gara / 10

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak, pista eta errepide probetan podiumean / 12

Aterpea elkarteko eta udaleko ordezkariak, Udazkeneko Festako zozketen irabazleekin, Zumaburuko Isla plazan. TXINTXARRI

Herriko komertzioetan erosteagatik, sariak

Udazkeneko Festa egin dute Aterpeak eta udalak irail erdialdean. Zozketako irabazleek 3.500 euro jaso dituzte saritan: 500 euroko bi eta 250 euroko hamar. Aterpea elkarteko bazkide diren establezimenduetan gastatu ahalko dute irabazitako dirua

Txintxarri

Lasarte-Oriako komertzioetan erosteko ahalegina saritu du Aterpea elkarteak. Irailaren 23an egin zituen zozketak: 500 euroko bi sari eta 250 euroko hamar irabaz zitzaketen herritarrek. Astebete beranduago, Zumaburuko Isla plazan elkartu dira hamabiak, antolatzaileen eskuetatik sariak jasotzeko. Diru hori Aterpeako bazkide diren establezimenduetan gastatu ahalko dute.

Sole Villaronek eta Xabier Romerok irabazi dituzte 500 euroko bi sariak. 250 eurokoak, berriz, hauek: Neus Juradok; Txema Salvadorrek; Oihana Romerok; Luisa Ledok; Igor Lopezek; Maximiliano Manzanok; Espe Alvarezek; Juan Jose Molanok; James Rodgersek; eta Josune Iturriak. Pozarren jaso dituzte guztiek gutun saridunak, Aterpea elkarteko kideen eta Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezen eskuetatik.

Balorazio "oso positiboa"

Aterpeako zuzendaritza batzordeko kide Ramon Ormazabalek azpimarratu du "oso positiboa" izan dela aurtengo Udazkeneko Festa, eta bete dela helburu nagusia: herriko merkataritza txikian erosketak egitea. Nabarmendu du ekimena ez dela bukatu, Garaikoetxea-Landaberri zein Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako haurrek egindako marrazkiak eskegita daudelako Udazkeneko Festan parte hartu duten komertzioetan. 650 marrazki bildu ditu Aterpeak aurten. Haurrek marraztu dute udako oporretan egin dutenari buruz.

Udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek gogoratu du erosketa bonuen kanpaina hasi dela, eta hilabete amaierara arte iraungo duela, bonu guztiak lehenago erabiltzen ez badira. 5, 10 eta 20 eurokoak dira, eta parte hartzera animatu diren herriko komertzio, taberna eta zerbitzu enpresetan eskura daitezke. Era berean, Aterpeari eskertu dio herriko merkataritzaren alde egiten duen lana.

Udalaren 2019ko kontu orokorra, alegazio epean

Urriaren 19ra arte aurkez ditzakete arrazoibideak herritarrek; ondoren, udalbatzak onartu behar du txostena

Txintxarri

Aurreko urteko kontu orokorren txostena argitaratu du Lasarte-Oriako Udalak. Herritarrek alegazioak jarri ahalko dizkiote urriaren 19ra arte, astelehenarekin. Ondoren, udalbatzak onartu beharko du dokumentua.

Kontu orokorren dokumentuan, besteak beste, hau jasotzen du: Lasarte-Oriako ondarearen, egoera finantzarioaren, emaitzen eta aurrekontuaren gauzatze-mailaren irudia. Kontu hauek osatzen dute txosten orokorra: balantzea; ekonomia eta ondare arloko emaitzen kontua; ondare garbiaren aldaketen egoera-orria; diru-fluxuen egoera-orria; aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria; eta memoriak. Udalbatzak txostena onartuz gero, udalak Kontu Auzitegiari bidaliko dio dokumentua, "indarrean dagoen araudiak aurreikusten dituen epeak betez".

Kontu orokorren txostena Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean ikus daiteke, esteka honetan: *http://www.lasarte-oria.eus/eu/-/udalaren-2019ko-kontu-orokorra-alegazio-aldian*.

HAPO planaren idazketa prozesuko hurrengo urratsak

Kultur etxeko hitzaldi aretoan saio presentzial bat egingo dute urriaren 22an, ostegunez, 18:00etatik aurrera

Txintxarri

Hiri Antolamendu Plan Orokor berria lantzen ari da Lasarte-Oriako Udala. Parte-hartze prozesu bat abiatu du, lasarte-oriatarrek ekarpenak egin diezazkioten aurrerapen txostenari. Horren baitan, tailer telematiko batzuk egin dituzte asteon, Jitsi Meet aplikazioa erabilita. Astea amaitzeko, gaur, urriak 2, paseo bat antolatu dute Oria ertzetik, ibaiak eta udalerriak zer nolako harremana duten ikusteko.

Urri amaieran, hilaren 22an, ostegunez, kultur etxeko hitzaldi aretoan saio presentzial bat egingo dute, plana idazterako orduan kontuan hartu beharreko irizpide orokorrei buruz eztabaidatzeko.

Herritar talde batek bideo bat egin eta zabaldu du egunotan, lasarte-oriatarrak animatuz HAPOaren idazketa prozesuan parte hartzera. "Oso garrantzitsua da; jokoan dago zer nolakoa izango den herriaren eredua datozen 15 urteetarako". Vimeo plataforman ikusi daiteke ikus-entzunezko pieza hori, esteka honetan: *https://vimeo.com/461364861*.

Sarek 2021. urteko maiatzera atzeratu ditu mendi igoerak

Buruntza eta Santa Barbarara igo ordez, Lasarte-Oriako Sarek argazkia egiteko deia egin du, Okendon 12:00etan

Txintxarri

Izan Bidea egitasmoaren baitan, Euskal Herri osoko 650 tontor igo behar zituzten bihar, urriak 3, larunbatez, euskal presoen etxeratzea eta elkarbizitzarako urratsak egitea aldarrikatzeko. Lasarte-Oriako Sarek bat egin zuen ekimenarekin, eta Santa Barbara eta Buruntza igotzea proposatu. Eguraldi iragarpena ikusi ostean, Sarek erabaki du 2021eko maiatzaren 8ra atzeratzea ekitaldia. Horren ordez, deia egin du herrian herriko plazan elkartu eta argazki erraldoi bat ateratzera, larunbat honetan bertan. Lasarte-Oriakoa Okendon egingo dute, 12:00etan.

Azken Ostirala aldarrikapen ekintza egin du Lasarte-Oriako Sarek irailaren 25ean. Herriko Ernaik jakinarazi du datorren hilabetean autobusak antolatuko dituzte Jabi Gallaga, Aitzol Iriondo eta Ibon Fernandez Iradi preso herritarrak bisitatzeko Cordobako eta Lannemezango (Frantzia) espetxeetan.

Dozenaka herritarrek parte hartu dute iraileko Azken Ostiralean. TXINTXARRI

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Plana bete gabe jarraitzen duela salatu du Eguzkik. TXINTXARRI

"2017rako amaitua egon behar zuen bidegorriak"

Eguzki Talde Ekologistak "alde onak eta txarrak" ikusten dizkio Lasarte eta Txikierdi bitarteko bidegorria eraikitzeko proiektua onartu izanari; aldizkari ofizialean argitaratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. "Lanak esleitu eta urtea bukatu aurretik hasiko omen dira"

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lasarte-Oria eta Txikierdi arteko bidegorria eraikitzeko proiektua onartu izana begi onez ikusten du Eguzki Talde Ekologistak, baina epeekin "eszeptikoa" da. Lanak esleitu eta urtea bukatu aurretik hastea da aldundiaren asmoa, eta 20 astetan eraikitzea bidegorria; milioi eta erditik gorakoa izango da aurrekontua. "2016an, orduko Mugikortasun diputatu Marisol Garmendiak iragarri zuen 'berehala' eraikiko zela bidegorria, baita alferrik iragarri ere", salatu du Eguzkik. "Oraingoan, baina, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratu du iragarpena; sinesgarritasun gehiago eman beharko diogu".

Lasarte-Oria eta Txikierdi arteko bidegorria eraikitzen hasteari "alde onak" ikusten dizkio talde ekologistak, "segun eta gauzak nondik begiratzen diren". Bidegorri "txikia" izango dela zehaztu du, kilometro bakarrekoa, eta "apala", ez baitu emango Errekalde-Luzuriaga zatiak ematen duen zerbitzua. "Lasarte-Oria eta Txikierdi arteko bidegorria begi bat gehiago izango da lurraldeko Bizikleta Bideen Planean aurreikusitako Donostia-Mutriko ibilbidearen katean, eta hori ona da, ezbairik gabe". Hori esanda, Eguzkik dio albistea ezin duela ontzat jo, Lasarte-Txikierdi zatia "2017rako amaituta" egon behar zelako, eta, Donostia-Mutriku ibilbidea, berriz, "2021erako oso-oso aurreratua".

"Harrigarria eta lotsagarria"

Adjektibo horiek erabili ditu Eguzkik, definitzeko zer iruditzen zaion Lasarte-Oria eta Usurbil artean oinezkoentzako eta txirrindularientzako "lotura eroso eta batez ere segurua" ez egotea oraindik. "Datorren urtean norbait hasiko da pedalei eragiten Donostian Mutrikurantz barrena...eta Txikierdiraino baino ez da iritsiko. Usurbileraino bertaraino iristea bai izango zela albiste bikaina".

Eguzkiren aburuz, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Plana urratzen ari da foru aldundia: "Donostia-Mutriku ibilbidea osatzeaz hitz egiten egon behar genuenean, Lasarte-Txikierdi zatiaz ari gara". Plan hori 2013ko ekainean onartu zuten aho batez Batzar Nagusietan ordezkatuta zeuden talde politiko guztiek, talde ekologistak gogoratu duenez. "Planak zortzi urte aurreikusten ditu, bi laurtekotan banatuta, 2013-2017 eta 2017-2021, Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarean egiteke dauden bidegorri-zatiak egiteko, sarea behingoz osatzeko". Epe hori bukatzeko urtebete falta denean, "gehiegi" dira egiteke dauden zatiak.

COVID-19a dela eta, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunak protagonismoa irabazi duela uste du Eguzkik. "Zoritxarrez, egoerak mugikortasun mota horri ematen dion potentziala erabat garatu ahal izateko oztopo bat da bidegorrien sarea amaitu gabe egotea Gipuzkoan".

NEURE KABUZ

MIKEL YARZA ARTOLA

Zergatik euskaraz?

Zergatik abesten duzu euskaraz? Zergatik ez ingelesez? Nazioarteko ateak irekitzeko balioko dizu, mundu osoko entzuleengana heltzeko. Hamaika aldiz egin didate galdera hori azken egunetan, nire musika taldearen disko berria promozionatzen nabilen honetan.

Eta galdetzen diot neure buruari ea zentzuzkoa ote litzatekeen espainiar bati galdetzea zergatik kantatzen duen gaztelaniaz, edo ingeles bati zergatik ingelesez. Eta pentsatzen dut fonetikan, hizkuntza handi edo txiki, bakoitzak berezko dituen soinu eta doinuetan, parekorik ez duten entzumen-altxorretan. Eta nola hizkuntza bakoitzak ematen digun giltza unibertso kultural berri bat ireki eta ezagutzeko, gure burua aberastu eta besteak hobeto ulertzeko. Eta burura datorkit Alien Weaponry taldea, metal musikaren zirkuituan berriki sekulako sona lortu duen Zeelanda Berriko hirukote gaztea. Maorieraz kantatzen dute. Ezin Berri Txarrak ahaztu, euskaraz egin dute bidea mundu zabalean. Eta lehen mailako ekoizleek eskertu izan diete euren hizkuntza propioan kantatu izana, beste bat imitatzen ahalegindu ordez.

Badirudi gure burua etengabe justifikatu behar dugula, hizkuntza gutxitu batean aritzeagatik. Baina Su Ta Gar aitzindariek esan zuten moduan: "nik aspaldi egin nian aukera". Jaio naiz, hezi naiz eta bizi naiz. Euskaraz. Kantatu nahi dut, sortu nahi dut, aske izan nahi dut. Euskaraz.

Garaikoetxeako kirol trofeoak jasotzeko aukera

Ikastetxeko sarreran toki gehiago egite aldera, kendu egin dituzte apalak. Urriaren 10era arte egin daitezke eskaerak

Txintxarri

Landaberri Guraso Elkarteak jakinarazi duenez, Garaikoetxea eraikineko sarreran egoten ziren apalak kendu egin dituzte, sarbidea "atseginagoa eta praktikoagoa" bilakatze aldera. Armairu horietan urteetan zehar pilatutako kirol-garaikurrak erakutsi izan dituzte orain arte.

Trofeo horietakoren bat berreskuratu nahiko balu herritarren batek, eskaera egin dezake urriaren 10era arte, larunbatez. Formulario bat bete beharko du Internet erabilita. Landaberri Guraso Elkarteak eskaera jasoko du, eta interesa erakutsi duen horrekin hitzordua zehaztuko du, garaikurren bila pasa dadin.

NOAOA
BIDAIAK
Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA
943 37 36 13
Ordutegia: 09:30-13:30
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da
info@noaoa.eus

Greziara bidaltzeko 1.200 kilo janari bildu dituzte

Jalgi, Avenida, Furia Beltza, Oreka eta Tiburtzio Artizar tabernek janari bilketa solidarioa egin dute lau egunez, Zaporeak Proiektuarekin elkarlanean. Erantzun dute herritarrek, eta elikagai kutxa mordoa bidaliko dituzte herritik Moriara, errefuxiatuei laguntzeko

Bost tabernetako kideak, furgoneta kargatzen hastear. JALGI KAFE ANTZOKIA

Lau egunetan 1.200 kilo elikagai pasatxo bildu dituzte antolatzaileek. TXINTXARRI

Txintxarri

Lasarte-oriatarren elkartasuna Greziara bidean da. Zehazki, Moriako errefuxiatuengana doa. Jalgi, Furia Beltza, Avenida, Oreka eta Tiburtzio Artizar tabernek janari bilketa solidarioa egin dute egun hauetan, eta herritarrek erantzun dute: 1.200 kilo janari pasatxo utzi dituzte bost establezimenduetako kutxetan. Antolatzaileek asteartean kargatu zuten furgoneta, eta bildutakoa Astigarragara eraman dute. "Eskerrak eman nahi dizkiegu lasarte-oriatarrei", adierazi dute.

Zaporeak Proiektuak Euskal Herri osoan barrena zabaldu du Morian bizi diren errefuxiatuentzat janaria biltzeko deia, eta herritarrak erantzuten ari dira. Lasarte-Orian, bost taberna arduratu dira mota desberdinetako eligaiak bildu eta bidaltzeaz: Jalgi Kafe Antzokia, Furia Beltza, Avenida, Oreka eta Tiburtzio Artizar. 1.200 kilo pasatxo kargatu dituzte Cecilia fruta-dendaren furgonetan; Astigarragara eraman dituzte kaxak.

Bost establezimendu horietara eraman dituzte arroza, pasta, olioa, atuna eta bestelakoak lasarte-oriatarrek. Horrez gain, Super BM eta Eroski supermerkatuek ere lagundu dute eta zenbait kutxa bete. Irailaren 23tik 27ra bitartean bildu dute janaria tabernek. Egitasmoa egun pare bat lehenago bururatu zitzaien. Herritarren erantzuna, beraz, ozena izan da. "Oso eskertuta gaude", adierazi dute tabernariek.

100.000 kilo Gipuzkoan

Zaporeak Proiektuak jakinarazi du Gipuzkoa osoan zehar 100.000 kilo janari bildu zituztela pasa den astean. Horrez gain, dirubilketa ekimen bat ere martxan jarri zuten, elikagaiak biltzeko trailerrak alokatu ahal izateko. Antolatzaileek zehaztu dute bildutako diruarekin bospasei kamioi alokatuko dituztela.

Irailean 146 kasu detektatu dituzte herrian

Iraila izan da hilabete aktiboena Lasarte-Orian; abuztuan baino 33 positibo gehiago erregistratu dituzte, horietatik hiru hilabeteko azken egunean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datu epidemiologikoen arabera

Txintxarri

Irailaren 30eko datu epidemiologikoak izan dira Txintxarri aldizkariak kontsultatu ahal izan dituen azkenak edizioa itxi aurretik. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eguneratutako txostenaren arabera, Lasarte-Orian hiru positibo erregistratu dituzte asteazkenean. Hilabeteko azken eguneko datuak gainontzekoei gehituta, ondoriozta daiteke iraila izan dela hilabete aktiboena gure herrian: 146 kutsatze atzeman dira, abuztuan baino 33 gehiago.

Egunak eta asteak igaro ahala, jaitsi egin da atzemandako kasu kopurua, hilabeteko ia egun guztietan kutsatzeak erregistratu dituzten arren –irailaren 21ean ez zuten kasu bakar baten berri eman–. Lehen hamabostaldian 109 positibo erregistratu dituzte, eta beste 37 bigarrenean. Kutsatze gehien detektatu dituzten egunak izan dira irailaren 5a –hamazazpi kasu–, 1a eta 9a –hamabina–. Irailaren 9az geroztik ez dituzte hamar kasu baino gehiago atzeman egun berean.

Eskualdearen egoera

Irailaren 30ean Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalerri guztietan atzeman dituzte kasuak: Urnietan sei, Hernanin eta Astigarragan bina eta Andoainen eta Usurbilen bana.

Osasun Sailaren datuen arabera, eskualde osoan 528 positibo erregistratu dituzte bukatu berri den hilabetean: 183 Hernanin, 146 Lasarte-Orian, 77 Andoainen, 49 Usurbilen, 43 Urnietan eta Astigarragan 30.

EAEko hiru lurraldeetan 385 kutsatze atzeman dituzte irailaren 30ean, horietatik 175 Gipuzkoan. 10.969 PCR proba egin dituzte asteazkenean, eta horietatik %3,5 positiboak izan dira. 245 pertsona daude ospitaleratuta koronabirusa dela eta, horietatik 55 ZIU Zainketa Intentsiboko Unitateetan. R0 edo birusaren birsortze-tasa 0,94koa izan da asteazkenean.

"Egoitza Domusvik kudeatzen duenetik, kalitatea jaitsi egin da"

ELA, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, Atsobakarreko hainbat langilek protesta ekintza egin dute egoitza parean

Langileak, protestan. M. ESCRIBANO

Txintxarri

"Nekatuta eta nazkatuta" daudelako, euren aldarriak kalera ateratzea erabaki dute Atsobakar egoitzako hainbat langilek, eta zentro parean protesta egin dute asteazken eguerdian. "Domusvi enpresak egoitza kudeatzen duenetik, 2019ko urriaren 1etik, kalitatea asko jaitsi da".

Domusviren kudeaketak "ezinegona" sortu du langileengan, protesta egin dutenen aburuz, euren "egoera mental eta fisikoan" eraginez. Martxoaz geroztik, egoerak okerrera egin duela salatu dute: "Pandemia dela eta, gure lan-karga asko handitu da; ahituta gaude".

Lan hitzarmenean adostutako zenbait alor ez betetzea egotzi diote Domusviri. "Aldi baterako kontratua daukan behargin batek lehentasuna dauka ordezkapenak egiteko, lanaldiaren %100era iritsi arte. Horren ordez, zentroa eta egoiliarrak ezagutzen ez dituzten langileak kontratatzen ditu enpresak, behin-behinean. Hori, norbait kontratatuz gero, batzuetan hutsik uzten baita ordezkatu beharreko lanpostua". Egoiliarrei ematen zaien arreta zuzenaren kalitatea ere jaitsi egin dela adierazi dute langileek, "pertsonal guztia ez delako ordezkatzen".

Izena eman Lasarte-Orian!

2020-2021 ikasturtea

Herriko Gida Komertziala sarean ikus dezakezu

www.txintxarri.eus/gida

Haurren garapena

Zure seme-alaben garapenerako laguntza integrala

Logopedia, osteopatia eta psikomotrizitatea

Noelia Calero
OSTEOPATIA • FISIOTERAPIA
Osteopatia:
688 815 089

salto gela
psikomotrizitatea
Psikomotrizitatea:
617 294 582

Hitz-Kiribil
Logopedia:
639 925 551

Euskaltegia

eman izena!
aek
euskara praktikoa

Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria
• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com

Muntteri AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK
MATRIKULAZIOA ZABALIK
• Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
• Aurrez aurreko eskolak.
• Autoikaskuntza.
• "On-line" aukera.

Akademiak

zitek zientzi eskola

• ZIENTZIAK • HIZKUNTZAK
• BANAKAKO ZEIN TALDEKO KLASEAK
• AURREZ AURREKO SAIOAK EDO ONLINE
ZUK AUKERATU!!
Tel: 943 36 31 06
Goikale 12, behea LASARTE-ORIA
www.zitek-akademia.com · info@zitek-akademia.com

Diafreoa

GURUTZE
Diafreo gunea
Zoru pelbikoa
ezagutza eta lanketa
urriak 10
larunbata
10:00-13:30
40 €
AFORO MUGATUA!!
IZENA EMATEKO: ✆ 617 584 095
GURUTZE Diafreo gunea • Geltoki 25 atzea

Datorren gidan zure eskola hemen azaltzea nahi baduzu orain duzu aukera!

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus

'Nerabeak Euskaraldian' liburua aurkeztu dute

'Eraginkorra al da ahobizi/belarriprest diseinua nerabeen hizkuntza-ohituretan aldaketak eragiteko?' galderatik abiatu dute ikerketa, eta bertan jasotako emaitzekin osatu dute liburua. Ttakun Kultur Elkartearekin batera, beste bost erakundek parte hartu dute

Txintxarri

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3an Euskaraldia egin zen Euskal Herri osoan, eta horren barruan *11 egun euskaraz* ekimena garatu zen. *Ahobiziak* eta *belarriprestak* izan ziren egitasmoaren protagonistak. Horiek, ordea, bi urte lehenago sortu ziren Lasarte-Orian. 2016. urtean, 40 egun euskaraz ekimena bideratu zuten eta hor erabili ziren lehenengo aldiz *ahobizi* eta *belarriprest* figurak. Baina erabili bakarrik ez; hori izan zen 2018an Euskal Herri osoan Euskaraldiaren ekimena abian jartzeko oinarri nagusietako bat.

Astelehenean aurkeztu dute Nerabeak Euskaraldian ikerketa liburua. EUSKADI.EUS

2018ko Euskaraldian, Lasarte-Oriak ekimen hori errepikatu bazuen ere, zenbait berrikuntza gehitu zituen, horien artean, nerabeei zuzendutako ikerketa-ekintza bat abiatu zuten. Ikerketa-ekintza hori liburu bihurtu da orain, eta horren berri eman dute proiektuaren parte izan diren sei erakundeetako ordezkariek: Jokin Guridi Ttakun Kultur Elkarteko kudeatzaileak; Jon Antxordoki Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburuak; Lurdex Etxeberria Oriarte Institutuko irakasleak; GFAko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari Garbiñe Mendizabalek; Estitxu Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara sustatzeko zuzendariak; eta Iñaki Eizmendi Ebete zerbitzuetako arduradunak.

Eraginkortasuna, nerabeengan

Euskaraldiaren diseinua zela eta, hamasei urtetik beherako nerabeek ezin zuten parte hartu egitasmoan, baina, aldi berean, gaztetxo guztiek betetzen dute Euskaraldian parte hartzeko oinarrizko baldintza; euskaraz ulertzea, eta Euskal Herriko bazter guztietan bezala, Lasarte-Orian ere arduratuta daude gaztetxoen arteko euskararen erabilerarekin.

Hori kontuan izanik, Euskaraldia sustatzeaz gain, nerabeei egokitzeko ahalegina egin nahi izan zuen herriak, nerabeak partaide ez ezik eragile ere izateko. Lanketa bera, 2016an egindako *Irten armairutik* esperientziarekin egin zen bezala, ikerketa-ekintza moduan egin zen, ateratako ondorioak eta tresnak beste hainbat herritarako ere baliagarri izan zitezkeelakoan.

Ekimena ez zuten hutsaren gainean eraiki, ordea. Ttakun Kultur Elkartearen, Oriarte Institutuaren eta udalaren artean hitzartuta dituzte gaztetxoen arteko erabilera sustatzea helburu duten hainbat egitasmo: Elemeleka saioak eta Kuadrillategi, besteak beste. Horiek oinarri hartuta, Euskaraldiaren ekimena egokitu egin zuten adin-tarte berriaren ezaugarrietara eta hiru edo lau sentsiblizazio-saio egin zituzten Euskaraldiaren aurretik Oriarte institutuko hamabi eta hemezortzi urte bitarteko gela guztietan; 33 gelatan, 741 ikaslerekin. Horrez gain, ikasle eragileen batzordeak osatu ziren hala nahi izan zuten gazteekin.

Liburuak udal, elkarte eta institutuetara paperean banatuko dira, baina bertsio digitalak ere zintzilikatu dituzte: *http://www.lasarte-oria.eus/documents/298010/3706031/Nerabeak-Euskaraldian-ONDORIOAK.pdf/7290044d-4026-bf09-8d59-672f7b4f2418*. Informazio gehiagorako *ttakun@ttakun.eus* helbidera idatzi daiteke.

Ikerketaren emaitzak

- Nerabeen %60k parte hartu du eta lorpenekin gustura ageri da.
- Erabileran eragina izan zuen, bereziki biko harremanetan.
- Ohikoa baino euskara askoz gehiago erabili zutenak %30 izatera iritsi ziren.
- Gazteen iritziz, lorpen berriek iraun egingo dute.
- Nerabeekin Euskaraldiaren lanketa egin daiteke, eragina du eta helduen antzeko ondorioetara iristen dira.
- Hainbat prest daude euskara gehiago erabiltzeko, baita eragile izateko ere.
- Lanketa ondo egin behar da.

TXINTXARRI

Espero baino erosle gutxiago

Europako Mugikortasun Astearen barruan, bigarren eskuko bizikleta azoka antolatu aurten ere Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz enpresak. Atari zabalean egiteko asmoa bazuten ere, euri zaparradek eta haize ufadek babes hartzera behartu zituzten, eta eguraldi txarraren ondorioz, antolatzaileek espero zutena baino jende gutxiago bertaratu da; 90 bat jarri dituzte salgai eta laurden bat saldu, 25 bueltan.

Lasarte-Oriako historia ezagutzeko ibilbidea, igandean

Behemendi Landa Garapeneko Elkarteak ibilbide sorta bat antolatu du Beterri-Buruntzako sei udalerrietan zehar. Igande honetan, urriak 4, Lasarte-Oria koeraikin eta muralak bisitatuko dituzte. Okendo plazatik abiatuko dira, 10:30ean.

COVID-19a tarteko, zenbait neurri hartuko dituela iragarri du Behemendik: aforoa bederatzi pertsonara murriztuko dute; beharrezkoa izango da maskara jantzita eramatea eta segurtasun distantzia mantenduko da. Behemendik jakinarazi du ibilbidearen iraupena izena ematen duten pertsonen araberakoa izango dela

Izena aurrez eman behar da 656 70 52 43 telefonora deituta edo *donostialdea@behemendi.eus* helbide elektronikora idatzita.

TXINTXARRI

Hasi dira euskal jantziak josten

Ikasturte berrian ere, Ione Artola jostunak gidatutako Euskal Jantzi Tradizionalen ikastaroak ez du hutsik egin. COVID-19ak eragindako egoerara moldatu behar izan duten arren, izen-emate kopurua mugatuta, aste honetan eman diote hasiera aurtengo saioari. Urrian eta azaroan ikasiko dute Euskal Jantzi Tradizionalak nola sortu.

Udal ordezkariek, teknikariekin batera, irailaren 25ean aurkeztu zuten urriko agenda kulturala, Manuel Lekuonan. TXEMA VALLES

Bueltan dira kultur ekintzak

Askotariko ekintzaz betetako kultur agenda osatu du udalak urrirako. Antzerkiaz, dantzaz, zinemaz, operaz eta bestelako emanaldiez gozatzeko aukera izango dute lasarte-oriatarrek. Gaur izango da lehen ekitaldia; 'The Gentlemen' filma emango dute

Txintxarri

Udako oporraldiaren ostean, urriko kultur agenda aurkeztu du udalak. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizi dantza!* ikuskizuna izango da larunbat honetan, eta hilabete osoan zehar, antzerkiaz, zinemaz, operaz eta dantzaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek.

Urria iristearekin batera bueltatuko dira kultur ekitaldiak Lasarte-Oriara. COVID-19ak eragindako egoerara egokitutako agenda kulturalaren aurkezpena egin dute, "kultura seguru baten aldeko apustua" eginaz. Agustin Valdivia alkateak eta Maite Iglesias Kultura zinegotziak egin dute aurkezpena, Juantxi Ugarte eta Rosa Illarramendi teknikariekin batera.

COVID-19ak eragindako egoera dela eta, kultur agenda aurrera eramateko ezarritako protokoloa errespetatu beharra dela azpimarratu du Iglesiasek. Horretarako, kultur etxeko langileen jarraibideei arreta jartzeko eskaera egin du, eta maskarak uneoro erabiltzea eskatu.

Udalak nabarmen murriztu du auditorioaren edukiera % 60ko aforo maximora eta pertsonen arteko distantzia minimora egokitzeko. Hori dela eta, 130 eta 229 pertsona arteko kopurua bilduko da gehienez eta familia-unitate bakoitzeko, gehienez, sei pertsonara murriztua geratu da. Horrez gain, areto barruan jatea eta edatea erabat debekatua dagoela gogorarazi du, eta auditoriorako sarrera eta irteerak ere modu ordenatuan, protokoloak agindu bezala egingo dutela iragarri dute. Horrela, auditorioaren beheko eserlekuetan eserita egon direnak Iñigo de Loiola kaleko atetik irtengo dira, eta, auditorioko goiko eserlekuetan egon direnak, berriz, Geltoki kaleko ohiko irteeratik.

COVID-19AK ERAGINDAKO EGOERA DELA-ETA, ETENDA EGON DA KULTUR AGENDA HERRIAN

Lehen emanaldia, urriaren 2an

Okendo Zinema Taldeak zabalduko du urriko agenda kulturala. *The Gentlemen* filma ikusteko aukera eskainiko diete lasarte-oriatarrei. Gaueko 22:00etan izango da ikus-entzunezkoa, eta sarrerak 5.50 euroren truke erosi daitezke, kultur etxeko leihatilan.

ANTZERKIA, ZINEMA, DANTZA, OPERA ETA ZARZUELA SAIOAK IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE

Urriko kultur agenda

Urriak 2, ostirala, kultur etxeko auditorioa, 22:00etan.
- Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'The Gentlemen' filma. Sarrera 5.50 euro.

Urriak 3, larunbata, kultur etxeko auditorioa, 17:00etan
- Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Bizi Dantza!' emanaldia eskainiko dute. Sarrera 3.80 euro.

Urriak 4, igandea, kultur etxeko auditorioa, 19:30ean
- Helduentzako zinema saioen barruan, 'La boda de Rosa' filma. Sarrera 5.50 euro.

Urriak 7, asteazkean, kultur etxeko auditorioan, 19:00etan
- 'La viuda alegre' opera ikusteko aukera izango da, euskarri digitalean. Sarrerak 7.5 eta 9 euro.

Urriak 11, igandea, kultur etxeko auditorioa, 17:00etan
- Haurrentzako zinema saioen barruan, 'Bihurri jatetxetik kale gorrira'. Sarrera 3.80 euro.

Urriak 16, ostirala, kultur etxeko auditorioa, 22:00etan
- Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'El Drogas' filma. Sarrera 5.50 euro.

Urriak 18, igandea, kultur etxeko auditorioa,19:30ean
- Helduentzako zinema saioen barruan, 'Va por nosotras' filma. 5.50 euro.

Urriak 23, ostirala, kultur etxeko auditorioa, 19:30ean
- Semblante Andaluz elkarteak antolatuta, 'Flamenco abierto' musika emanaldia. Sarrera doakoa, baina gonbidapena ezinbestekoa da.

Urriak 24, larunbata, kultur etxeko auditorioa,19:30ean
- 'Los Gavilanes' Zarzuela saioa izango da. Sarrerak 12 euro.

Urriak 25, igandea, kultur etxeko auditorioa,17:00ean
- Haurrentzako zinema saioen barruan, 'Scooby'. Sarrera 3.80 euro.

Urriak 30, ostirala, kultur etxeko auditorioa,22:00ean
- Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'Akelarre' filma. Sarrera 5.50 euro.

Urriak 31, larunbata, kultur etxeko auditorioa,20:00ean
- XVI. Dantza Zirkuituaren barruan, Doos Colectivo konpainiak 'El fin de las cosas' dantza emanaldia. Sarrera 5.50 euro.

'Bizi Dantza!', urriaren 3an

"Sekulako pozarekin" igoko dira larunbatean Pirritx, Porrotx eta Marimotots Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzara: "Oso pozik gaude *Bizi Dantza!* gure bizilagunekin partekatu ahal izango dugulako". Euren onena emango dutela ziurtatu dute, eta seguru dira ikuskizunean bildutakoekin ikus-entzuleekin batera, irri, kanta eta dantza egingo dutela.

Edukiera murriztua izango den arren, modu seguru eta alaian bilduko direla azpimarratu dute pailazoek, hortaz, emanaldia ikustera gerturatzeko deia egin diete Lasarte-Oriako txikienei. Arratsaldeko 17:00etan izango da ikuskizuna.

'Bizi Dantza'. KATXIPORRETA

Mendiaz eta naturaz gozatzen iraileko azken igandean

Lasarte-Oria Trail elkarteak antolatutako II. Mendi Festa arrakastatsua izan da: 282 pertsonak parte hartu dute, horietatik 186k martxa luzean eta 96k laburrean

Iñigo Gonzalez Sarobe

Natura, kirola, mendiko botak, makilak, lokatza...eta maskara. Berezia izan da Lasarte-Oria Trail elkarteak aurten antolatutako ekitaldia, Mendi Festaren II. edizioa. Desberdina antolaketa eta forman, baina esentzia aldatu gabe: egun eder bat igaro eta Lasarte-Orian eta inguruan dauden mendi eta paisaiez gozatzea. 300 pertsonak parte har zezaketen gehienez, eta 285ek izena eman dute.

Antolatzaile zein parte-hartzaileek bezperan zituzten errezeloak uxatu ditu igande goizeko zeru eguzkitsuak. Martxa luzea egin dutenek ez dute ikusi proba hasieran, goizeko 07:30ean ilun baitzegoen oraindik. Norberak bere dortsala zein den jakin, ilara egin eta tenperatura neurtu ostean ekin diote bideari martxalariek. Urrats berak egin dituzte martxa laburrekoek, ordu eta erdi beranduago. Inork ez du irteera gunean geratu behar izan 37,1 gradu baino gehiago emateagatik.

Martxa laburrekoekin batera joan da TXINTXARRI aldizkaria Buruntza mendirantz. Kale Nagusitik atera, Kalbario bidetik igo eta Plazaolako zubirantz abiatu dira martxalariak, giro ederrean. Tunela pasa ostean, eskuinerantz egin dute, eta mendi-giroa arnasten hasi, errepidea utzi eta belarra zapalduta. Azken egunetako euriteak tarteko, lokaztu samar zegoen bidea, baina apenas egon den erorikorik. Sustoren bat edo beste bai, ordea.

Aldapa gogor samar batzuk igo eta gero, martxalarien animoak piztu ditu Azkorte ermita gertu ikusteak. Lagun artean zihoan kuadrilla bat, igo eta jaisteari zentzua bilatu nahian: "Zertarako sufritu horrenbeste aldapak igotzen, gero berriro jaitsiko baditugu?", galdetzen zuen batek. Metro batzuk atzerago, familia bat bideaz gozatzen ari zen, haur txikia bizkarrean zeramatela. "Ttipi Ttapa ibilbidean izena eman genuen, baina, tamalez, bertan behera geratu zen; parte hartzea erabaki dugu hala ere".

Buruntzan, gailurra

Azkorte ermitako anoa postuan indarrak berritu eta gero, Buruntzako azken txanpa igotzeari ekin diote mendizaleek. Aurreko urteko ibilbidea leundu egin dute antolatzaileek, zenbait parte-hartzailek esan zutelako "gogorregia" zela. Hortaz, aurten ez dute zertxobait eskalatu behar den zatia egin behar izan, eta beste bide batetik igo dira tontorreraino. Bertan zain zituzten Xabi Carcedo eta Joxe Ramon Mendizabal Lasarte-Oria Traileko kideak, irribarre batekin. Irteetan jasotako txartela zigilatu, eta beherantz joan dira, Okendo plazara iritsi arte.

Buruntzatik jaistean ibilbide labur zein luzeko martxalariek topo egin dute. Azken horiek ia 28 kilometro egin dituzte, Andatza, Belkoain eta Buruntza igota. Batzuk zein besteak Okendo plazara iritsi dira, norbera bere erritmoan. Gure Etxea tabernako terrazan eserita zegoen gazte kuadrilla batek txalo artean hartu dituzte parte-hartzaileak. Metro batzuk aurrerago zegoen helmuga. Amaiera festarik ez dute egin antolatzaileek aurten, eta pintxoak eurek eskaini beharrean, zenbait tabernarekin kolaboratu dute. Kontsumizio txarteltxo bana jaso du parte-hartzaile bakoitzak. *Izan Inurri* egitasmoko kideek euren proiektuaren berri eman dute plazan, iaz bezala.

Tenperatura neurtu eta bakoitzak bere dortsala zein zen jakin ostean, giro ederran egin dituzte martxaren aurreneko metroak. TXINTXARRI

"Bezperan ez geneukan argi, baina ondo atera da"

JAVI OLAZAGOITIA II. MENDI FESTAREN ANTOLATZAILE TALDEKO KIDEA

Maitane Aldanondo

Azken parte-hartzaileak helmugara iritsi eta ordu gutxira, Javi Olazaigoitia herritarrarekin harremanetan jarri da TXINTXARRI aldizkaria, ekitaldiaren balorazio bat eskatzeko. Lasarte-Oria Trail elkarteko kide da Olazagoitia; mendi festaren bigarren edizioa antolatu duen pertsonetako bat izan da.

Eguraldia, koronabirusa... II.Mendi Festari begira kezkarik ez zaie falta izan Lasarte-Oria Traileko antolatzaileei. Proba amaituta, ordea, hitz onak dira nagusi. "Oso pozik gaude, atzo goizean ez nuen batere argi... baina ondo atera da". Hala dio Lasarte-Oria Traileko kide Javier Olazagoitiak jarduera nola joan den ikusita. Bere sentipenak harago, partaideek esan diotenagatik ere hala izan da. "Oso pozik zeuden. Egunotan bota dituenak ikusita, eguraldiak errespetatu egin du eta eman diegun poltsekin, zozketekin... pozik joan dira".

COVID-19ak buruhauste ugari ekarri dizkie eta kezka nagusietako bat irteera zen. Aurreikusita zuten Okendon pilaketa txikiren bat sor zitekeela eta hori saihesteko 10 minutu aurreratu dute. Mendian, antolakuntza arazoren bat ere izan dutela aitortu du. "Kanpokoak, agian, ez dira konturatu, baina antolatzaileok ikusi ditugu". Edonola iazkoa baino hobe joan dela uste du eta hurrengoetarako gauza asko ikasteko balio izan diela.

Azkorte ermitako anoa postuan indarrak hartu zituzten martxalariek. TXINTXARRI

II. Mendi Festan 285 pertsonak parte hartu dute; horietatik 96k martxa motza egin zuten irailaren 27an. TXINTXARRI

Hainbat parte-hartzailek makilen laguntzaz igo zuten Buruntza. TXINTXARRI

Tontorrera iristearen satisfazioa ikus zitekeen parte-hartzaileen aurpegietan. TXINTXARRI

Buruntzako tontorra. TXINTXARRI

Muga 300 partaidetan jarri zuten eta bart 280tik gora ziren izena emandakoak, 186 luzerako eta 96 laburrerako. Kopuru horietan haurrei parte hartzen ez uzteak eragin duela uste du, bestela, motzean familia gehiagok izena emango baitzuten. Halaber, itxialditik Gipuzkoan egin den lehen mendi jarduera izateak ere eragina izan duela irizten du. “Jendea mendi gogoz dago eta betiko mendizale askok eman du izena luzean. Anoa postuetan zeuden boluntarioei hori esan diete, gogotsu zeudela eta gauzak antola daitezen irrikatan”. Horren harira, aipagarria da kanpotik etorritakoen kopurua: 25 bat Bizkaitik, hamabost Nafarroatik, bi Kantabriatik eta Burgoseko bat. Harritua zegoen Olazagoitia. “Mendizale amorratua izan zaitezke, hala naiz ni, baina ez zait burutik pasa ere egiten Burgosera joatea. Probarik ez izateak hori ekarri du”. Lehenak izatearen "zorteak" partaideek esker ona adieraztea ere ekarri du. “Antolatzaileok asko baloratzen dugu, lan eta kezka asko baitira. Hori aitortzea eskertzekoa da”.

Edonola, izena emandako denek ez dute parte hartu. Ibilbide luzeko zazpi-zortzik kale egin dute eta laburreko hiruzpalau ere ez dira joan. Erabaki horretan larunbateko eguraldi txarrak zerikusirik izan dezakeen galdetuta, baiezkoan dago Olazagoitia. "Izan daiteke, goizeko hiruak arte euria ari zuen. Euskalmetetik esan ziguten ordu horretan ateriko zuela, baina...".

Lan ederra hartu dute antolatzaileek ibilbidea seinaleztatzen. Javi Olazagoitia, eskuinetik hasita lehenengoa. L-O TRAIL

"Ez zirudien talderik gabeko jokalarien egonaldia zenik"

ANDER BARDAJI FUTBOL ATEZAINA

Huesca taldearekin sinatu zuen kontratua amaitu du denboraldi berezi honetan. AFE sindikatuak talderik gabe dauden jokalarientzat egiten dituen egonaldietan izan da

Nerea Eizagirre

Ander Bardaji futbol atezainak (Lasarte-Oria, 1995) COVID-19az aparte, 2019-2020 denboraldi berezia bizi izan du. Bigarren B mailako Ejea taldearekin egon zen lanean itxialdira arte. Ostean, Huesca taldearekin entrenatu zen eta Lehen Mailarako igoera bizi zuen, bigarrengoz. Orain kontratua amaitu zaio eta ez du talderik. Ahalegin guztiak egiten ari da berriro ere jokatzeko eta horregatik, AFE sindikatuak antolatutako egonaldian izan zen abuztuan. Urte berezi horretaz jardun gara herriko atezainarekin.

Itxialdian Huescan egon zinen.

Bai, nik Ejean, Huescaren filialean hasi nuen denboraldia eta bertan Huesca taldeko jokalari talde bat geunden. Ziurgabetasun handia zegoen eta badaezpada taldeak Huescan geratzeko eskatu zigun.

Bakarrik egon nintzen bertan. Gogorra izan zen, baina ez dut oroitzapen txarrik. Gauza bat edo beste egiten egon nintzen.

Egunero fisikoki mantentzeko zerbait egiten nuen noski; ahal nuena. Prestatzaileak bidalitako gauzak edo YouTuben ikusitako aerobic edo kardioko bideoak. Ohituta zaude egunero entrenatzera eta ezin duzu geldirik egon.

Itxialdiaren ostean, berriz, Huescarekin entrenatzen hasi zinen.

Gure liga bertan behera geratu zen. Ejea bigarren B mailako sailkapen erdialdean zegoen. Beraz, jokalarien erdiek atsedena hartu zuten eta filialean ginen Huescako jokalariei Bigarren Mailako taldearekin entrenatzeko esan ziguten, Lehen eta Bigarren Mailako txapelketak jarraipena izango baitzuten. Beharra izango zela ikusi zuten eta liga amaitzera arte Huescarekin egon ginen.

Itzulera arraroa izan zen. Guztia bat-batean egina zirudien. Lehenengo bakarka entrenatzen genuen zelaian, inongo harremanik gabe; gero talde txikietan, bospasei pertsonako taldeak; azkenik talde osoa.

Eta denboraldia amaitzean, berriro ere, igoera ospatu zenuen taldearekin.

Bai. Ondo atera zen. Ez da berdina urtea bukatzea entrenatu edo jolastu gabe, etxean itxita... Entrenatzen bukatzea eta gainera, igoera batekin... Beti da polita. Hor bizitzen dena, gutxitan bizitzen da. Nik zortea izan dut, Huescan bi igoera eta Fuenlabradan bat bizi izan ditut. Ezberdina izan da azkenean; jenderik gabe, ospakizun gabe.

Azken urteetan hiru igoera bizi izan dituzu, talisman antzeko bat zara taldeentzat.

Kar, kar. Broma hori familia eta lagunen artean egiten didate. Azkenean, Huescan egon nintzen lehen urtean igoera lortu genuen eta Fuenlabradan ere lortu genuen. Aurtengoan Huescarekin entrenatzen bukatu dut denboraldia eta igo dira.

Taldean ere batzuk esaten zuten: "Zu gurekin geratu; talisman bat zara. Egon zaren talde guztiek igoera lortu dute".

Kontratua amaitu eta talderik gabe geratu zinen. Baina ez zara besoak uztartuta geratu, AFE sindikatuak antolatutako egonaldi baten izan zara abuztuan, Valentzian.

Bai, horrela da. AFE sindikatuak entrenamendua saioak antolatzen ditu talde gabeko jokalarientzat.

Alde batetik, entrenamendu dinamika ez galtzeko egiten dute. Imajinatu talde batetik deitzen dizutela eta ez duzula entrenatu eta formaz kanpo zaudela.

Aurten, gainera, are gehiago. Jokalari askok, itxialdiaren ostean, ez dute nik bezainbeste zorte izan eta ez dute denboraldia entrenatzen amaitu. Martxotik baldin bazaude jokatu gabe eta orain irailean deitzen badizu beste talde batek, hastea kosta egiten da eta beti ongi dago zerbait entrenatzea.

Taldeak saio hauei adi egoten dira hor dauden jokalari guztiak talderik eta kontraturik gabe daudelako. Eskaparate bezala ere balio du.

Nolakoa izan da esperientzia?

Oso ona. Entrenatzaileak goi mailakoak ziren. Aitor Lopez Rekarte zen lehen entrenatzailea eta atezain entrenatzaile Emilio Lopez Fernandez. Haiek profesionalak izan dira eta taldearen antolamendua ere horrelakoa izan da, profesionala. Ez zirudien talderik gabeko jokalarien egonaldia zenik. Nahiz eta berez talde bat ez izan, talde bezala funtzionatu du.

Dena oso ondo antolatua zegoen: zelaia, hotela, entrenamenduen dinamika... Azkenean, talderik gabe zaudenean kezkaz beteta zaude, 'Nola joango da dena?'. Baina bertan talde bateko futbolista sentitzen zara.

Zein entrenamendu mota egin dituzue?

Denboraldi-aurre bat izango balitz bezala egin dugu lan. Geldi egon eta gero, fisikoa hartzen joan, gauza taktikoak...

Denak ezezagunak ginen eta talde bezala, gauzak lantzea zaila da. Hamabost egunetarako zoaz eta ezin duzu hutsetik nahi bezain beste landu. Baina behintzat ideia nagusi eta kontzeptu batzuk lortu ditugu.

Partidak ere jokatu dituzue eta bitan titularra izan zara, ezta?

Bai, lau partida jokatu ditugu. Entrenatzeaz aparte, jokatzeko aukera baduzu hobeto. Minutuak jokatzea, entrenamendua da, baina puntu bat gehiago ematen du prestakuntza horretan.

Bi atezain ginen eta entrenatzaileak banatzea erabaki zuen. Bi partidatan hasieratik egon naiz atean eta beste bitan bigarren zatian sartu naiz.

AFEren helburua da, jokalariei taldea bilatzea. Orduan, jokalari guztiei minutuak ematen saiatu dira era orekatu batean.

Emilio Lopez atezain entrenatzailearen arabera, Bigarren Mailarako edo Bigarren B mailarako prestatu zaituzte...

Prestakuntza oso ona izan da. Atezain entrenatzaileak, esate baterako, Lehen Mailan, Ingalaterran... Esperientzia ona dauka. Entrenamenduak kalitatezkoak ziren.

Eta entrenatzen jarraitzen duzu?

Oraintxe nire kabuz entrenatzen ari naiz. Plan bat daukat prestatzaile fisiko batek egina eta harekin entrenatzen naiz ere ate azpian. Forma ez galtzeko eta oraindik merkatua irekia dagoenez, edozein momentutan deitzen badidate, ondo joateko.

Zuk non ikusten duzu zure burua?

Bigarren maila zail ikusten dut. Azken urteetan ez ditut hainbeste minutu eduki. Ea Bigarren B mailako talde bat aurkitzea dudan. Hori izango litzateke helburua.

Eskaintzarik ez duzu izan, orduan.

Ez, zain nago. Profesional mailako merkatua uste dut aste honetan ixten dela. Ea aste honetan berririk dudan.

Kasurik onenean pozik egongo naiz; txarrenean... Ba ez dakit zer egingo dudan. Nahiago dut aurrerago planteatu. Esperantza mantentzen dut.

Ander Bardaji, AFE sindikatuak antolatutako egonaldiko entrenamendu batean. AFE

Arteaga II.a, buruz burukoaren atarian

Lasarte-Oriako pilotariak Bakaikoa garaitu behar du gaur, urriak 2, 1. mailako buruz buruko txapelketarako txartela lortzeko. Partida gogorra aurreikusten du Arteaga II.ak. Bestalde, Intzako senior bikoteak garaipena erdietsi du Azkoitiaren aurka

Txintxarri

Axier Arteagak, Arteaga II.ak, buruz buruko txapelketako aurretiko sailkapen partida jokatuko du gaur, urriak 2, ostirala, Etxarri-Aranatzen (Nafarroa). Aurrez aurre Bakaikoa izango du. Duela hiru urte promozioko finalean bat egin zuten biek eta Arteaga II.ak lortu zuen txapela. Oraingoan ere, emaitza errepikatu nahiko luke Lasarte-Oriako pilotariak.

Ez du lan erraza izango, ordea. Arteaga II.ak partida zaila eta gogorra espero du. "Bakaikoa pilotako hiru modalitateen artean buruz burukoan hoberen moldatzen dela esango nuke. Binaka ere oso ondo ari da jokatzen azken boladan. Partida asko irabazten eta joko ona egiten. Partida zaila izatea aurreikusten dut".

Bakaikoak, gainera, etxean jokatzen du partida eta bere herritarren aurrean buruz buruko txapelketako txartela eskuratu nahiko du.

Axier Arteaga, Artega II.a, partida jokatzen. TXINTXARRI

Buruz burukoa helburu

Herriko pilotariak buruz burukoaren sailkapen partida jokatzea espero zuela adierazi du. "Nire nahia sailkapena jokatzea zen eta espero nuen lehenengo mailan jokatzeko aukera nire esku egotea".

Partida irabazten duen pilotariak lehen mailako buruz buruko txapelketa jokatzeko aukera izango du eta galtzen duenak bigarren mailako lehiaketan parte hartuko du.

Horregatik, bere jokoa egiten saiatuko da. "Dakidan bezala jokatzen saiatuko naiz eta partida ona egiten. Ea garaipena lortzen dudan".

Binakako lehiak

Buruz burukoaz gain, bikotekako partida ere lehiatuko du herritarrak larunbatean, urriaren 3an. Erasunekin batera Zubizarreta III.a eta Urretabizkaia II.a izango ditu aurrez aurre, Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

Arteaga II.ak berrogeialdiaren ostean ez du atsedenik izan eta binakako partida ugari ari da jokatzen. Lehengo asteburuan, esate baterako, Logroñon (Errioxa) eta Ataunen izan zen.

Lasarte-Oriako pilotaria ez dago gustura asteburuan egindako lanarekin. "Bi partidatan lehen zati txukuna egin dudala uste dut, batez ere, larunbatean. Baina gero, partida aldatu denean ez dut jakin nire atzelariari laguntzen. Ondorioz, ez ditugu partidak ongi itxi eta galdu egin ditugu biak".

Denboraldi berezi honetan jokatutako binakako partiden irakurketa ere egin du. "Denetariko partidak egin ditudala uste dut. Batzuk oso onak; txarrak ere bai... Eta erregulartasun hori hartzea falta zaidala uste dut. Ea pixkanaka lortzen dudan".

Seniorra, puntuak gehituz

Pilota profesionala alde batear utzita, Intza elkarteko kideek Ezker Hormako bigarren jardunaldia izan zuten aurreko asteburuan eta bigarren mailako senior bikoteak bakarrik eskuratu zuen garaipena.

Lehen jardunaldian antzera, Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola osatutako senior bikoteak partida ederra jokatu zuen Azkoitiaren aurka. Aranberri eta Juaristi bikote indartsu izan zuten aurrez aurre . Tantoak asko borrokatu behar izan zituzten Intzako seniorrek eta azkenean, lasarte-oriatarrek eraman zituzten bi puntuak, 20-22 irabazita.

Bigarren kadete mailako gaztetxoek, berriz, Michelingo kirol gunean izan zituzten hitzorduak larunbatean eta ezin izan zituzten arerioak garaitu.

Intza 1 bikotea izan zen lehena kantxara ateratzen. Jokin Lizasok eta Haritza Diaz de Gereñuk ezin izan zuten Gaztelekuko bikotearen aurka, 11-22. Jokoan bi taldean indarrak berdinduta egon arren, Andoaingo bikotea hasieratik nagusi izan zen sakeei esker; 10 tanto egin zituzten.

Intza 2 osatzen duten Beñat Olazabalek eta Pedro Eloseguik partida borrokatua jokatu zuten. Tamalez, Olazabalek partida erdian min hartu zuen eskuin eskuan. Horrek partidaren patua eta emaitza baldintzatu zuen, 14-22.

Kontakturik gabeko errugbia. Melerik ez da izango. TXINTXARRI

Errugbia prest, moldaketekin entrenamenduak hasteko

Babyauto Zarautz taldeko Ohorezko eta Ohorezko B mailek urria erdialdean hasiko dute denboraldia

Txintxarri

Hainbat kirolen antzera, errugbia ere denboraldi berrirako prestatzen ari da. Beltzak RTko kideek aste honetan hasiko dituzte saioak. Baina Babyauto Zarautz taldean dauden Lasarte-Oriako errugbi jokalariak iraila hasieratik ari dira lanean.

Espainiako Federazioak ezarritako neurriak betez. Hau da, taldean entrenatuz, kontakturik gabe, aldagelarik erabili gabe, eta abar. Izan ere, dena ondo bidean, Ohorezko eta Ohorezko B mailako lehiaketari hasiera emango diote urriaren 17-18ko asteburuan.

Datarik ez

Beltzak RTko kideek aipatu digutenez, denboraldi hasiera zehaztua duten bakarrak dira. Euskal Liga eta 18 eta 16 urte azpiko taldeek oraindik ez dute datarik.

Hori dela eta, lasaitasun mezua helarazi nahi dute Beltzak taldeko kideek. "Garbi ez egoteak, jokalarien osasuna lehiaketaz haratago lehenesten dela nabarmentzen du".

Datarik izan ez arren, Beltzak RT eskolako gaztetxoak aste honetan hasiko dira lanean. Gaur, ostirala, 10 eta 12 urte azpiko taldeak izango dira Michelingo kirol gunean batuko direnak arratsaldeko 18:10etik aurrera. 14 urte azpiko taldeak, berriz, asteazkenean, urriaren 7an, izango du lehen saioa.

"Kontakturik gabe eta neurri guztiak jarraituz". Errugbi taldeko kideek azpimarratu dutenez, errugbiaren kontzeptua ez da orain artekoa izango. Gutxienekotik hasi eta federazioak, zein Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako neurrien arabera moldatuko da jarduna. "Ez dago gure eskuetan ez noiz edo nola hasi, baina errugbia egoeraren arabera moldatzen joan gara".

Sumendi taldea ez da izotz-hockeyan lehiatuko aurten

Sumendi taldeak aurten izotz-hockey txapelketan ez parte hartzeko erabakia hartu du. Sumendiko jokalari Lorena Zabala herritarrak azaldu digunez, COVID-19a dela eta, Sumendik taldea osatzeko arazoak izan ditu. "Gure taldean Bartzelona edo Valladolideko jokalariak zeuden eta aurten ezin izan dira konprometitu. Partidetara nahiko justu iristeko arriskua genuen".

Gainera, esfortzu ekonomiko handia egin behar dute taldeek denboraldia hasterakoan. "Gu talde txikia gara, familiartekoa. Dirua jarri eta gero iaz bezala denboraldia bukatzeak ez digu mesede handirik egiten".

Hori dela eta, hurrengo denboraldiari begira entrenamendu saioekin jarraitzeko, lerroko patinetako emakumezko, zein talde mistoko Euskadiko Txapelketan lehiatuko da taldea.

Pistan, zein errepidean lehen postuetan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek asteburu lanpetua izan dute. Haimar Etxeberria eta Asier Pozo pistako Espainiako txapelketan lehiatu dira. Beñat Carbayeda, berriz, podiumera igo da Antzuolan eta Villavan jokatutako probetan



Pozo eta Etxeberria, Espainiako txapelketako podiumean. ESPAINIAKO TX. FEDERAZIOA

Txintxarri

Apiriletik irailera. Bost hilabete itxaron behar izan dituzte txirrindulariek Pistako Espainiako Txapelketa jokatzeko. Tafallako Miguel Indurain belodromoak irailaren 23tik 27ra barne hartu zituen maila ezberdinetako lehiak. Bertan, Buruntzazpi eskolako Asier Pozo eta Haimar Etxeberria izan dira Euskadiko selekzioarekin lehian eta zilarrezko bi domina ekarri dituzte Lasarte-Oriara.

Abiadura eta jazarpen taldekako probetan lortu dituzte sariak. Bi probetako sailkapen saioetan lehenak izan arren, finaletan ezin izan ziren maila gorenera iritsi. Abiadura probako finalean, Haimar Etxeberriak, Ibon Diaz eta Jaime Romerok Gaztela eta Leoneko hirukoa izan zuen buruz buru. Garaipena Gaztela eta Leonek erdietsi zuen, 50,647 segundoko denbora eginda; Euskadik, berriz, 50,903 segundoan geratu zuen erlojua.

Jazarpen proban, Buruntzazpi eskolako bi kideak lehiatu ziren eta Valentziako erkidegoko taldearen aurka jokatu zuten finala. Valentziarrek eraman zuten sari nagusia 4.28,890 denbora egin ostean; Euskadik, 4.33,355.

Bakarka ere parte hartu zuten Etxeberriak zein Pozok. Bi probatako sailkapen saioetan izan zen Pozo, abiadurako kilometro bateko proban eta puntuazio proban. Bosgarren eta hamargarren izan zen, hurrenez hurren. Etxeberriak ordea, *scratch* proban parte hartu zuen eta zortzigarren izan zen.

Europako Txapelketa

Asteburuan egindako lana dela eta, Asier Pozo pistako Espainiako selekzioarekin ari da lanean, Valentzian.

Urriaren 6ra arte, Europako Txapelketa prestatzeko saioak egingo dituzte. Horien arabera, taldekako zein bakarkako probetan zein korrikalarik parte hartuko duten erabakiko du Raul Mena hautatzaileak.

21 urtez azpiko eta junior mailako Europako Txapelketa urriaren 8tik 13ra lehiatuko da Fiorenzuola d'Ardan (Italia) .

Errepidean ere podiumean

Pistaz gain, errepideko lasterketak ere lehiatu zituzten Buruntzazpiko kideek.

Beñat Carbayedak Uzarraga 46. Igoerako txapela jantzi zuen, larunbatean, Antzuolan Mendiko saria ere jaso zuen.

Buruntzazpiko kideak helmuga marra gainean irabazi zion ihesaldi kide izan zuen Nicolas Alustizari.

Igandean, Indurain Anaien Sari Nagusian parte hartu zuen Carbayedak Haimar Etxeberriarekin batera, Villavan (Nafarroa) eta berriro ere, podiumera igotzea lortu zuen Buruntzazpiko gazteak, hirugarren izan zen; Etxeberriak 6. postuan igaro zuen helmuga.

Beñat Carbayeda Uzarraga igoerako garaile izan zen. EUGENIO POZO

Ekintzaz betetako ikasturtea aurkeztu du Ostadar Ipar Martxak

Urriaren 7an egingo dute lehen entrenamendua. Hilabeteroko irteerez gain, ikastaroak ere egingo dituzte

Ipar martxako kideak Pilatwalk ikastaroa egiten. TXINTXARRI

Txintxarri

Ostadar Ipar Martxako kideek ekintzez betetako ikasturteari hasiera emango diote urriaren 7an, asteazkenez, 19:00etan. COVID-19ak eragindako itxialdiaren osteko lehen saioa izango da. Aurten entrenamendu saioak asteazkenetan, 19:00etan eta osteguneta, 10:00etan izango dituzte.

Ostadar Ipar Martxako kideek segurtasun- eta osasun-neurri guztiak jarraituko dituzte saioetan. Entrenamendua hasi aurretik, tenperatura hartuko dute eta eskuak garbituko dituzte. Ostean, hamarreko taldeetan eta gutxieneko distantzia mantenduz ibiliko dira. Ostadar Ipar Martxa taldeko arduradunek jakitera eman dutenez, jardueran zehar ez da derrigorrezkoa izango musukoa jantzita eramatea, distantzia mantentzen bada.

Ibilbideak eta ikastaroak

Urtero legez, hilabetero irteera bat egingo du taldeak. Aurten, berrikuntza modura, taldeko kideek bi bideren artean aukeratzeko aukera izango dute, bata bestea baino motzagoa.

Urrian, Lasarte-Oria eta Aginaga arteko Buruntzaldeako ibilbidea egingo dute batzuk joan etorrian eta besteak, Aginagaraino bakarrik; azaroan, Igeldo eta Antigua auzoetan ibiliko dira; abenduan, Zubieta edo Txardalur mendira iritsi ahalko dira; urtarrilean, berriro ere, Lasarte-Oria eta Aginaga bidea edo Lasarte-Oria eta Orio arteko bideak egingo dituzte; otsailean, Lasarte-Oriako mugak edo Lasarte-Oriatik Teresategira joateko aukera izango dute; martxoan, Zumaiatik Debara joan edo Zumaiatik Donejakue bidea hartu eta Elorriagara joan eta Zumaiara buelta egitearen artean erabaki beharko dute eta azkenik, apirilean, Hendaia–Donibane Lohitzune edo Hendaiatik Abadiara eta kostatik bueltatxo bat egin ahalko dute.

Ibilbide horiez guztiez gain, ikastaroak ere izango dituzte urtean zehar. Azaroaren 21ean, mendian hobeto ibiltzeko teknikak ikasiko dituzte eta pilatwalkeko hiru saio egingo dituzte, azaroaren 14an, martxoaren 13an eta ekainaren 12an.

KOMIKIA

ZORION AGURRAK

Eneko
Zorionak Eneko! Ama, aita, amona eta aitonaren partetik.



Ekain
Zorionak txapelduna, gure etxeko erregea zara eta super mega pila bat maite zaitugu. Zortzi mila miloi muxu potolo. Amaiur, aitatxo eta amatxo.

Eneko
Gogoratzen naiz jaio zinenean: pelutxe bat zenirudien. Orain, ordea, 18 urte beteko dituzu. Zorionak eta ondo pasa!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet
Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

HILDAKOAK

Ramon Elola Garmendia. Irailaren 30ean.
Maria Luisa Alkorta Urruzola. Irailaren 28an.
Jose Manuel Matesanz Rojo. Irailaren 28an.
Antonio Parra Perez. Irailaren 27an.
Daniel Sanz Fernandez. Irailaren 27an.
Maria Muñoz Garcia. Irailaren 26an.
Jesus Maria Saldaña Herrero. Irailaren 25ean.

OHARRAK

Kontsumo bonuen kanpaina

Martxan da Bi bonu ezberdin erosteko aukera izango dute bezeroek, baina inoiz ez, hiru bonu baino gehiago establezimendu bakoitzeko. Lehenik, merkatari eta zerbitzuetako establezimenduetan salduko direnak. 20 euroko balioa izango dute, baina 10 euroren truke erosi ahalko dituzte herritarrek. Ostalaritzako establezimenduek, berriz, 10 euroko balioa duten bonuak salduko dituzte, baina 5 euro ordaindu beharko dira horiek eskuratzeko Urriaren 31n amaituko da bonuak erosteko aukera, eta, guztira, 125 establezimendu –54 merkatari, 30 ostalari eta 41 zerbitzu– batu dira kanpainara.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 2
Min. 12º Max. 15º

Larunbata, 3
Min. 12º Max. 16º

Igandea , 4
Min. 12º Max. 16º

Astelehena , 5
Min. 13º Max. 17º

Asteartea, 6
Min. 14º Max. 18º

Asteazkena , 7
Min. 14º Max. 19º

Osteguna , 8
Min. 14º Max. 18º

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 2	DE MIGUEL
LARUNBATA, 3	DE ORUE
IGANDEA, 4	DE ORUE
ASTELEHENA, 5	LASA
ASTEARTEA, 6	GIL
AZTEAZKENA, 7	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 8	URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	5		3	6			9	
			8	4		7	6	
			2				5	
1					3	8		
	8					5	1	6
	7	9				2		
6	3	5						
2		7	5					3
			1	3	7			5

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lan bila nabil geriatria arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/ bentley.ma@gmail.com

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Etxea partekatzeko neska baten bila gabiltza. Interesatuoak jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@
ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ZOZKETA

Iraileko bazkide zozketaren irabazlea!

Izaskun Usabiaga izan da irailean zozkatu dugun sortatxoaren irabazlea! Ttakun Kultur Elkarteko izena eman zuten bazkideen artean izan da irabazlea. Ostegun honetan jaso du saria, Eskulanak egiteko liburuxka bat eta hiru musika CD eskuratu ditu. Adi bazkide! Urria iritsi zaigu, eta hilabete honetako zozketa ere martxan baitugu! Oraingoan SunsetBastian-en eskutik, ilunabarraz piknik batekin gozatzeko hitzordua zozkatuko dugu. Izen ematea urriaren 18ra arte egin daiteke, 646 824 466 zenbakira whatsapp bat bidalita edo *harpidetza@ttakun.eus* helbidera mezu bat bidalita. Zorte on!

ESKELA

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Julene Iraola eta Uxue Odriozola, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA HAPO saioa
Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barruan, Lasarte-Oriako ibaiertza eta pasealekua hobetzeko eta eraldatzeko proposamenak jasotzeko saio parte-hartzailea egingo du Udalak. Oria ibaiaren memoriaren eta etorkizunaren inguruko ibilbidea egingo da Manuel Lekuona kultur etxetik aterata. Parte hartzeko izena eman behar da udaleko webgunean.
Manuel Lekuona kulturetxea, 18:00etan.

ANDOAIN Erakusketa
Ondarreta ikastetxe publikoaren 50. urteurrenari buruzko erakusketak ateak irekiko ditu. Urriaren 31ra arte izango da ikusgai.
Bastero kulturgunea, astelehenetik ostiralera 18:30etik 20:00etara; asteartetan itxita; larunbata, 10:30tik 13:30era eta 18:00tik 20:30era.

ASTIGARRAGA Euskaraldia
Euskaraldiko aurkezpena egingo da. Ostean, Beatriz Egizabalen *Txor Txor* bakarrizketa umoretsua izango da.
Erribera kulturguneko aretoa, 20:00etan.

DONOSTIA Erakusketa
Bizitza borrokan binetaz bineta erakusketa ikusteko azken egunak. Lucio Urtubia anarkista nafarraren biografian oinarritutako *Gerezi-garaia* eleberri grafikoaren sorkuntza prozesuari buruzko erakusketa da. Irudiak Belatz ilustratzaile eta gidoilariarenak dira. Urriaren 7ra arte izango da ikusgai.
Intxaurrondo kultur etxea, 16:00etatik 20:30era.

DONOSTIA Artea agerian
San Telmo museoak *San Telmo zure kasa; familientzako proposamenak* ekimena martxan jarri du. Arte museoaz era autonomoan gozatzeko proposamenak egingo ditu astebururo familiei zuzenduta. Asteburu honetan, *Artea agerian* proposamena aurkeztu du. Second Canvas aplikazioaren bitartez artelanak beste era batera ikusiko dituzte museora hurbiltzen diren familiek. Jarduera egiteko materiala ostiraletik aurrera eskuragarri izango da museoan eta webgunean eta doakoa da. Ez da erreserbarik egin behar. Sarrera, haurrak doan; helduak, 6 euro.
San Telmo museoa, 10:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Opera digitala. *La viuda alegre* balletaz gozatuko dute zaletuek, Opera digitala atalean. Australian Balletak Franz Lehar musikagilearen titulu bereko opereta ospetsuan oinarritutako balleta egiteko eskatu zion Ronald Hynd koreografo britaniarrari, 1974an. Ikuskizuna Parisen kokatua dago, Belle Époquen garaian eta Hanna aberats alargunaren gorabeherak erakusten ditu. Sarrera aurretik, 7,5 euro: egunean, 9 euro.
Manuel Lekuona kulturetxea, asteazkena 7, 19:00etan.

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Mobilizazioa
Sare herritarraren *Izan Bidea* dinamikaren barruan argazki jendetsua egingo da.
Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Bizi Dantza!* ikuskizuna eskainiko dute. Euskal dantzak oinarri dituen ikuskizun alai eta koloretsua dakarte herriko pailazo bihurriek. Sarrera, 3,80 euro.
Manuel Lekuona kulturetxea, 17:00etan.

DONOSTIA Ikuskizuna
Potxin Patxin artistek ingurumenari buruz hausnartzera gonbidatuko gaituzte antzerki, mimo, malabare, joku eta elkarrizketa nahasten duten ikuskizunean. Gonbidapenak lortzeko *okendokulturetxea@donostia.eus*-era bidali behar da eskaera. Maskara eramatea nahitaezkoa da.
Okendo kultur etxea, 17:00etan.

AGINAGA Kontzertua
Ameba eta *Unidad Alavesa* taldeen kontzertua, San Praixku jaietan. Aforo mugatuagatik, sarrerak izena ematez banatu dira.
Ariztitxo frontoia, 18:00etan.

IGANDEA 4

AGINAGA Herri kirolak
Aginaga auzoko San Praixku jaien barruan, herri kirolen erakustaldia izango da. Harrijasotzaile lanetan, Jokin Eizmendi, Imanol Illarramendi *Kortaberri*, Gorka Etxeberria eta Udane Ostolaza.Aizkolariak Iñaki Azurmendi eta Xabier Zaldua izango dira. Joseba Ostolaza eta Manuel Mari Galarraga hizlari modura egongo dira. Agiñarrek ere trontzan, txingetan eta lokotx bilketan parte hartuko dute. Aforo mugatuagatik, sarrerak izena ematez banatu dira.
Ariztitxo frontoia, 12:00etan.

OSTEGUNA 8

USURBIL Bilera
Emakumeen Etxea definitzeko parte hartze prozesuaren lehenengo bilera egingo dute. Saio horretan biltzen dirre pertsonek prozesurako balio eta printzipioak landuko dituzte. Parte hartzeko aurrez izena eman behar da *parekidetasuna1@usurbil.eus* helbidean eta mezuan Emakumeen Etxea definitzeko parte hartze prozesuan esku hartu nahi duzula zehaztu behar da.
Zehazteke, izena ematearen arabera, 18:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

The Gentlemen (JBGA)
Ostirala: 22:00.
La boda de Rosa
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

¡Scooby!
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.
Uno para todas
Larunbata: 19:30, 22:15.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.

HERNANI

BITERI

La boda de Rosa
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 19:30.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 16:30.
Turuleka oiloa
Larunbata: 16:30.
Igandea: 16:30.

USURBIL

URBIL

Black Beach
Ostirala: 22:40.
Larunbata: 22:40.
Igandea: 22:40.
Eso que tú me das
Ostirala: 19:50.
Larunbata: 19:50.
Igandea: 19:50.
Astelehena: 18:40.
Explota Explota
Ostirala: 16:00, 19:00, 20:40, 22:00.
Larunbata: 16:00, 19:00, 20:40, 22:00.
Igandea: 16:00, 19:00, 20:40, 22:00.
Astelehena: 19:00, 20:40, 22:00.
Greenland: El último refugio
Ostirala: 15:50, 18:50, 21:50.
Larunbata: 15:50, 18:50, 21:50.
Igandea: 15:50, 18:50, 21:50.
Astelehena: 18:50, 21:50.
La habitación (The Room)
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 22:30.
Igandea: 22:30.
Astelehena: 22:30.
Padre no hay más que uno 2
Ostirala: 16:30, 19:10, 22:20.
Larunbata: 16:30, 19:10, 22:20.
Igandea: 16:30, 19:10, 22:20.
Astelehena: 19:10, 22:20.
Pinocho
Ostirala: 16:10, 17:30, 19:20.
Larunbata: 16:10, 17:30, 19:20.
Igandea: 16:10, 17:30, 19:20.
Astelehena: 17:30, 19:20.
Rifkin's Festival
Ostirala: 16:50, 19:30, 22:10.
Larunbata: 16:50, 19:30, 22:10.
Igandea: 16:50, 19:30, 22:10.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:10.
Tenet
Ostirala: 18:00, 21:40.
Larunbata: 18:00, 21:40.
Igandea: 18:00, 21:40.
Astelehena: 18:00, 21:40.
Trasto
Ostirala: 17:10.
Larunbata: 17:10.
Igandea: 17:10.
Spectre
Astelehena: 20:50.

LABURPENA

The Gentlemen (JBGA)
Zuzendaria eta gidoilaria: Guy Ritchie. **Musika:** Christopher Benstead. **Argazkia:** Alan Stewart. **Herr.:** Erresuma Batua (2019). **Antzezleak:** Matthew McConaughey, Charlie Hunnam, Hugh Grant, Colin Farrell, Eddie Marsan, Henry Golding, Michelle Dockery, Jeremy Strong, Jason Wong, Jordan Long, Russell Balogh, Chidi Ajufo. **Iraupena:** 113 minutu.

Azpijokoz betetako mundua

The Gentlemen filmak emango dio hasiera Okendo Zinema Taldearen zine-forumeko denboraldi berriari.

Guy Ritchie zuzendariak Ivan Atkinsonekin eta Marn Daviesekin batera idatzitako lana da. *Lock, Stock and Two Smoking Barrels* eta *Snatch* filmeen antzera, zuzendari ingelesek komedia, akzioa eta hilketak nahasten ditu lan berri horretan.

Mickey Pearson (Matthew McConaughey) britainiar estilodun gangster eta kannabis trafikatzaileak erretiroa hartu nahi du. Horretarako milioiak balio dituen bere inperioa salduko du. Baina arerioak salerosketa oztopatzen saiatuko dira. Azpijokoak, eroskeria eta xantaia erabiliko dituzte inperioa bereganatzeko, txinatar eta errusiar mafia ere tartean egongo da.

Horrez gain, Fletcher (Hugh Grant) ikertzaile pribatuak ere xantaia egiten dio. Ikertzaileak pertsonai aberatsen trapu zaharrak saltzen dizkio Big Davek (Eddie Marsan) zuzentzen duen egunkariari eta Pearsonen hainbat azpilanei buruzko informazioa du egunkariarentzat.

The Gentlemen filma jatorrizko hizkuntzan gaztelaniazko azpidatzizkoekin eskainiko da.

BABESLEA aldika produktu bereziak Tel.: 943377089 • aldika@aldika.com • www.aldika.com

Argazki lehiaketako saria jaso du Zugastik

ION ZUGASTI UDAKO OPORRALDIKO ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Hiru argazki aurkeztu ditu Lasarte-Oriako argazkilariak udako oporraldien argazki lehiaketara, eta hiru horiek lortu dituzte lehenengo hiru postuak. Saria jaso du

Ion Zugastik asteazken arratsaldean jaso du argazki lehiaketako saria. TXINTXARRI

Txintxarri

Afizio du Ion Zugastik (Lasarte, 1986) argazkilaritza. Kirolarien atzetik ibili ohi da, uneak izoztu eta argazki sortak osatuz, baina, oraingoan, kirol argazkiak alde batera utzi, eta paisaia ederren irudiak aurkeztu ditu TXINTXARRI-ren udako oporraldiko argazki lehiaketara.

Herri aldizkariaren sare sozialen bidez jakin zuen lehiaketaren berri, eta parte hartzera animatu zen. Horrela, gustuko hiru argazki aukeratu, eta hirurak jarri ditu lehian: *Aske*, *Frigiliana* eta *Jaizkibel*.

Hasieran, lehiaketara aurkeztu zenean ez zuen espero lehiaketa irabaztea, baina bozkak emateko egunek aurrera egin ahala, bere argazkiak lehen postuetan ikusteak pentsarazi zion irabazlea izan zitekeela. Lehiaketara aurkeztutako gainerako argazkiengatik galdetuta, azaldu du batzuk besteek baina maila "hobea" zutela: "Maila ezberdinetako argazkiak aurkeztu dira".

Lehenago ere parte hartu izan du argazki lehiaketaren batean, baina lehen aldia da saria eskuratu duena. Gogora ekarri du Bergaran eta Zarautzeko argazki lehiaketetan parte hartu zuela, baina saririk irabazi ez. Oraingoan, berriz, sari ederra eraman du etxera: Aldika enpresaren produktuekin osatutako saskia. Asteazken arratsaldean pasa zen Aldikak Orian duen egoitzatik, eta saskia eskuartean itzuli da etxera, pozik. Produktu asko batu dituzte saskiak; besteak beste, bakailua, kokotxak, olagarroa, ahate-magreta eta gatza.

Familiarekin eta gertukoekin gozatuko du saskiaz Zugastik, horrela jakinarazi dio aldizkariari: "Bizitzen ari garen egoera honekin ezin dugu jende askorekin elkartu, baina familiakoekin eta gertukoekin partekatuko ditut produktuak".

Zorionak, beraz, Ion. Asko asko gozatu dezazuela saskiaz eta mila esker TXINTXARRI-ren argazki lehiaketan parte hartzeagatik; zuri eta gainerako parte-hartzaile guztiei ere bai. Laster arte!

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan, doan eta euskaraz

DESKONTU BEREZIAK HERRIKO KOMERTZIO ETA OSTALARIEI

- PUBLIZITATEA
- PUBLIERREPORTAJEAK
- PUBLIZITATEA INTERNETEN
- GIDA KOMERTZIALA...

EGOERA ZAIL HONETAN DENOK BATERA AURRERA EGINGO DUGU!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66